

Kate
CHOPIN

JOXE MARI BERASATEGI ZURUTUZA

L I T E R A T U R A U N I B E R T S A A L A



Ekaitza
eta beste
34 ipuin

erein  IGELA

KATE CHOPIN

EKAITZA
eta beste 34 ipuin

Joxe Mari Berasategi Zurutuza
Itzultzailea

erein & IGELA

Obra honen edozein erreprodukzio modu, banaketa, komunikazio publiko edo aldaketa egiteko, nahitaezkoa da jabeen baimena, legeak aurrez ikusitako salbuespenezko kasuetan salbu.

Liburu honek Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren diru-laguntza jaso du.

Liburu honen itzulpena Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpretuen Elkartearekin Literatur Ondare Unibertsaleko Obra Nagusien Bilduma euskarara itzultzeko sinatutako hitzarmenaren barruan burutu da.

Jatorrizko izenburuak:

Emancipation. A Little Fable; A Point at Issue; Doctor Chevalier's Lie; Beyond the Bayou; After The Winter; The Bénéitous' Slave; Miss McEnders; Loka; At the 'Cadian Ball; A Visit to Avoyelles; In and Out of Natchitoches; Mamouche; Madame Célestin's Divorce; Azélie; A Lady of Bayou St. John; A Gentleman of Bayou Têche; In Sabine; A Respectable Woman; Tante Cat'rinette; A Dresden Lady in Dixie; Lilacs; Regret; The Kiss; Ozeme's Holiday; A Sentimental Soul; Her Letters; Odalie Misses Mass; The Unexpected; Fedora; A Night in Acadie; A Pair of Silk Stockings; Nég Créol; An Egyptian Cigarette; A Family Affair; The Storm.

1. argitalpena: 2021ko abenduan.

Liburuaren azala eta diseinua: Antton Olariaga

© Itzulpenarena: 2021, Joxe Mari Berasategi Zurutuza

© Hitzazurrearena: 2021, Joxe Mari Berasategi Zurutuza

© Argitalpen honena: 2021, EREIN eta IGELA argitaletxeak

Inprimatzailea: Itxaropena, S.A.

ISBN: 978-84-9109-783-9

Legezko Gordailua: D 1590/2021



KATE CHOPIN (1850-1904)

HITZAURREA

KATE CHOPIN IDAZLEA, Katherine O'Flaherty Faris, 1850ean jaio zen Ameriketako Estatu Batuetan, Missouri-ko Saint Louis hirian. Ama jatorri frantsesekoa zuen; aita, irlandarra; ondorioz, txikitatik izan zen frantses-ingeles elebiduna eta kulturabiduna, bi komunitateetako parte aldi berean. Bere hazkuntzan eragin nabarmena izan zuten etxeko emakumezkoek. Izan ere, aita tren-istripuz hil zitzaion bost urte zituela, eta ama, amona eta birramona izan zituen gidari lehen urteetan. 13 urte zituela galdu zuen birramona frantses-hiztun maite-maitea.

Etxeko galerak gutxi ez, eta AEBetako gerra zibila ere bizi eta pairatzea egokitu zitzaion, Saint Louisen bi bandoen aldekoak baitzeuden (Batasuna eta Konfederazioa).

Hemeretzi urterekin ezagutu zuen Oscar Chopin, aitaren aldetik frantsesa, gerra garaia European pasatutakoa. Katek hogeitau urte zituela ezkondu ziren, eta ezkon-bidaian Alemanian, Suitzan eta Frantzian ibili ziren.

Louisianako New Orleansen jarri ziren bizitzen, gerra osteko berreraikuntzan murgilduta zegoen hiri bat, ekonomia- eta arraza-gatazkak puri-purian zituena. Senarra merkataria zen, kotoiaren eta beste hainbat jeneroren negozioan. Bost seme eta alaba bat izan zituzten; hala

ere, bizitza sozial aktiboa izan zuen, New Orleanseko kultura-eskaintza aski zabala baitzen: opera, antzerkia, zaldi-lasterketak, Astearte Gizena ihauteria... Oporretan, itsasontzia hartu eta Grand Isleko turismo-leku kreolera joaten ziren. Senarraren negozioaren finantza-arazoak zirela medio, Clouterville-ra –Natchitoches parrokiako herrixka bat– aldatu behar izan zuten, baina hura malariatz hiltzean, Kate alargun geratu zen 32 urterekin, soilik bere gain zuela seme-alabak hazteko ardura.

Amak konbentzitu zuen Saint Louiseran itzultzeko, han bizi baitzen familia, baina handik urtebetera hil zitzaion ama ere.

Kate Chopin 1904an hil zen, 54 urterekin.

Gaztetatik izan zuen idazteko zaletasuna, eta diario batean jasotzen zituen eguneroko gertakariak eta kopiatzen saiakera, poema eta bestelako idazkietako zatiak. Alargun gazte zela, seme-alaben kargarekin, familiaren adiskide eta mediku obstetrak animatu zuen idazten hastera, egoera eramaten eta sos batzuk irabazten lagunduko ziolakoan. Horrela ekin zion etxeoandre-bizitzatik idazle-bizitzarako bideari, emazte- eta ama-roletik artista-rolera.

Idazle frantses eta amerikar batzuen eraginpean hasi zen idazten, bereziki Guy de Maupassant. Honela idatzi zuen Chopinek berak eragin horren gainean: «...Haren istorioak irakurri eta liluratuta geratzen nintzen. Hura bizitza zen, ez fikzioa; izan ere, nik modu lauso batean, pentsatu gabe bezala, irudikatu nituen tramen, modaz pasatutako mekanismoen eta agertoki-apainduren kokalekua funtsezkoa zen ipuingintzaren artean. Hara gizon

bat tradizioetik eta autoritatetik ihes egin zuena, bere baitan sartu eta bizitzari bere izatetik, bere begietatik, begiratu ziona, eta modu zuzen eta sinple batean esan ziguna zer ikusten zuen...».

1890 eta 1905 bitartean argitaratu ziren bere bi nobela eta istorio labur asko; gehienak, aldizkari eta egunkarietan. Argitaratu gabe ere asko geratu ziren bizi zen artean. Izan ere, jorratzen zituen gaiak eta haiek tratatzeko moduak askotan egin zuten topo gizartearen eta argitaratzaile-kritikarien ikuspegi moral estuekin. Chopinek hainbat estilo landu zituen idazketan, aintzat hartuta bere jatorri irlandar-frantsesa eta Louisianan bizi izan zen urteetako eragin kreole eta cajun-akadiarra. Esklabotza eta emakumeen eskubideak sartu zituen bere istorio askotan, emakumea batere konbentzionala ez zen gisa batean erretratatu, bere nahi eta behar propioekin. Era askotan izan zen Chopin garaiz aurreko emakumea.

1890an argitaratu zuen lehen nobela, *At Fault*, dibortzioa gai hartuta. Protagonista kanpoko eta barruko bizitza ezin uztartuz dabil: alargun gazte katoliko praktikantea izanik, ezin du onartu dibortzioa; baina, aldi berean, ezin du egotzi bihotzetik maite duen gizon dibortziatua. Ez zuen zabalkunde handi-handirik izan.

Bigarren nobela bat ere idatzi zuen, *Young Dr. Gosse and Théo* izenburua izatekoa zena. Ordea, ez zuen aurkitu argitaratzeko prest zegoenik, eta, gerora, suntsitu egin zuen eskuizkribua.

1899ko *The Awakening* (*Esnatzea*. Xabier Monasteriok euskaratua. Testu Zaharrak, 2019) da bere nobelarik

ezagunena. Protagonista, *rol femenino* arrakastatsu baina arrunt hutsalak asetzen ez duen emakume bat, minez konturatzen dena nola blokeatzen dioten genero-mugek bizitza betegarriago bat bilatzeko gaitasuna. Kritikari gutxi batzuek goratu zuten eleberriaren trebezia, baina gehienek oso gaizki hartu zuten liburua, *morboso, desatsegin, kaltegarri, lizun* eta *pozoitsutzat* joz.

Idazle *lokal* moduan onartzen zuten, baina balio literariorik aitortu gabe. *Esnatzea* nobela (1899) garaiz aurreratuegitzat jo zuten; literatura-kritikek desanimatuta eta idazletzat ez zutela hartzen ikusirik, handik aurrera ipuingintzari lotu zitzaion, ia eksklusiboki.

Ipuin edo istorio labur batzuk solte argitaratu ziren aldizkari eta egunkarietan, batzuk maila lokalekoak eta beste batzuk nazio-mailakoak. Baita ipuin-bildumetan ere. Hemen aurkezten ditugun 35 istorioetako gehienak, aldizkarietan ez ezik *Bayou Folk* eta *A Night in Acadie* bildumetan argitaratuak dira, eta idatzi ziren dataren arabera ordena kronologikoan eman ditugu. Kate Chopinek zehatz-mehatz jaso zuen ipuinak noiz idatzi zituen, noiz eta zer aldizkaritara bidali zituen, zein onartu zizkieten eta zein ez, zein argitaratu ziren. Ipuin-bildumekin ere izan zuen gorabehera bat baino gehiago. Adibidez, Herbert S. Stonek, ez jakin zergatik, deuseztatu egin zuen bere ipuinen hirugarren bilduma, *A Vocation and a Voice*, argitaratzeko kontratua –ez zen argitara eman 1991 arte, Penguin Classics-en–, edo aurkezten dugun bildumako azken ipuina, *The Storm (Ekaitza)*, zeina 1898an idatzi zuen, baina ez zion bidali inongo

editoreri, bere eduki sexualagatik, seguruenik ez baitzen egongo hura argitaratzeko prest zegoen editore amerikar garrantzitsurik.

Chopin hil eta gero, haren nobelak ia ahaztu egin ziren, nahiz eta istorio laburretako batzuk agertu ziren, handik bost urtera, antologia batean; beste batzuk urteen joanean berrargitaratu ziren, eta apurka-apurka jendea berriz irakurtzen hasi zen. 1932an agertu zen Chopinen biografia batek (Daniel Rankin: *Kate Chopin and her Creole Stories*. Philadelphia, University of Pennsylvania Press) hitz onak zituen haren fikzio laburarentzat, baina *Esnatzea* errefusatzen zuen, tamalgarritzat joz. Hala ere, 1950 inguruan akademikoek eta beste batzuek onartu zuten nobela hori fikzio-lan zorrotz eta hunkigarria dela. Halako irakurleek abiarazi zuten Kate Chopinen berpizkundea, nabarmenenetako bat Estatu Batuetan literaturan gertatu direnen artean. Kritikariak haren lanaren funtsa ulertzen hasi ziren. Kenneth Eble-k Chopinen «irudimen ezkutuaz» idatzi zuen, haren «irudimenez beteriko bizitzaz, zeinak itxuraz haur txikia zenetik egin baitzuen aurrera bere benetako bizitza ondo arautuaren azpian eta hartatik bereiz, nolabait». George Arms-ek idatzi zuen Kate Chopinen lanak «egia present den gertakari-sail bat aurkezten duela, baina, pragmatismo filosofikoz, ez dagoela prest gertakarien *azken egia* ateratzeko, ezpada egia ikusteko etengabe eraldatzen ari den zerbait bezala, gertatzen den testuinguruaren hain parte, non sekula ezin baita *azken egiaz* hartu edo, horrexegatik, abstraktuki baieztatu».

Per Seyersted norvegiarrak 1969an argitaratu zuen Kate Chopinen biografian, *Esnatzea* nobelaren alde egin zuen. Harrezkero, egilea ezagun egin zen mundu guztian. Arreta handia izan du akademikoen eta ikasleen aldetik, eta haren lanak hizkuntza askotara itzuli dira, munduko eta gure inguruko nagusietara ez ezik, baita katalanera eta galegora ere.

Harrezkero, ezin konta ahala akademikok idatzi dute Chopinen bizitzaz eta lanaz. Kritikari feministek egundoko eragina izan dute. 1969tik aurrera Kate Chopinez idatzi den gehiena izaera feministakoa izan da, edo emakumeek gizartean duten posizioan zentratua. Baina oker larria litzateke Chopinen obren jite feminista soilik nabarmentzea. Lehen mailako idazlea izan zen, eta pareko gutxi ditu orrialde zuri baten gainean bizitza eraikitzeko trebezian.

Egun Kate Chopinek onarpen zabala du Amerikako funtsezko idazleetako baten gisan. Haren nobelak eta istorioak eskura daude ezin konta ahala liburutan eta Interneten. Herrialde askotako kritikari eta akademikoek jorratu dute haren lana aldizkari-egunkarietako 400 artikulutan, gutxienez 60 liburutan eta 160 doktoretetan. Haren lanean oinarrituta, artistek antzezlanak, filmak, kantuak, operak, dantzak, gidioak, fikzio grafikoa eta beste hainbat arte-mota egin dituzte.

Emily Toth-en *Unveiling Kate Chopin* (Jackson. University Press of Mississippi, 1999) biografiak du egun eraginik handiena Kate Chopinez idatzi direnen artean.

Idazle klasikotzat hartzen da, elokuentziaz mintzo dena gaur egun ere puri-purian dauden gaiez. Maiz

ematen zaio literatura-mugimendu feminista modernoaren aitzindari izatearen ohorea. Idazle paregabea da hitzen hautaketan, ironiaren erabileran eta gaien oparotasun iradokitzailean.

ANTOLOGIA HONETAN AURKEZTEN DITUGUN 35 ipuinak Ana I. Moralesek hautatuak dira, eta gehienak ezkon berritan bizi izan zen Louisianako ipar-erdialdean daude kokatuta, batez ere Natchitoches inguruan, oro har plantazioetako landa-giroan, tartean direla, plantazio-jabeak ez ezik, haien neskame-, morroi- eta langile-jendea, asko esklabo izandakoak edo esklaboen ondorengo *askeak*; beltzak, mulatoak eta mestizoak, kreoleen (kolono europarren ondorengo bertan jaioak) eta cajun indiarren artean. Bada bestelakorik ere; adibidez, *Lilacs*, Paris inguruko moja-komentu batean sartuko gaituena; edo *Nég Créol*, miseria biziartziko diguna New Orleans hiriko azokako baztertuenaren larrutik. Berez, ipuinak istorio solteak dira, gai zentralaren aldetik bata bestearekin zerikusirik gabeak, baina asko inguru berean gertatzen dira eta leku-izenak nahiz pertsonen izen-abizenak ipuin batean baino gehiagotan errepikatzen dira, hartara nolabait harilkatuz. Badira bi salbuespen: azken ipuina (*The Storm / Ekaitza*) bederatzigarrenaren (*At the 'cadian Ball / Dantzaldi akadiarrean*) jarraipena da.

Amaitze aldera, hitz pare bat Kate Chopinek pertsonaien aniztasunari esleitzen dion hizkeraz, jende notable edo kultuaren ingeles jaso aberatsetik mendekoen

eta baztertuen ingeles herrikoi frantses-oinarriko xeheraino, noizbehinka erdibideko erregistroa ere tartekatuz bi taldeetakoen arteko harremanetan.

Ingeles jasoaren kasuan, besteak beste janzkeraren eta apainketaren arloko deskribapen xehe aberatsek lan franko eman didate itzultzeko. Ingeles xehearenean, berriz, osorik ulertzeak; izan ere, hitzak ia ezagungaitz bihurtzeraino ageri dira maiz, ahoskatzean jaten diren letren ordezkoko apostrofoz beterik. Hizkera xehe hori emateko, neure inguruko txikitako euskara erabili dut, belarrian dudana, Chopinek bide horren hautua egiten duen mintzaldietan, eta apostrofoa erruz erabili dut *falta-edo* diren letren arrastoa agerianago uzteko, ulermena zertxobait errazte aldera. Azkenik, Zegama eta inguruko euskarek duten bokal *luze* edo *geminatuak* (¿?) gainean zirkunflexua jarriz markatu ditut.

BUKATZEKO, ESKERRIK ASKO Literatura Unibertsala bildumarako lehiaketaren antolamenduan, ipuinen hautaketan (Ana I. Morales) eta itzulpen hau argitaratzeko lanean parte hartu duten guztiei, batez ere Igelako editore Lander Majuelo Itoizi, eta bereziki Maialen Berasategi Catalán zuzentzaileari, egin dizkidan ohar egoki eta zoliengatik.

Hona, beraz, Kate Chopinen 35 ipuin labur, haren gai eta kezken erakusgarri eder bat, Txantoneneko Arantxa, Iñaki, Jexux, Koldo, Nekane eta Rosa Mariri eskainiak, ezagutu ez genituen birramonen gomutan. On egin deizuela.

Joxe Mari Berasategi Zurutuza

KATE CHOPIN



EKAITZA
eta beste 34 ipuin

EMANTZIPAZIOA

Bizitzaren fabulatxo bat

BAZEN BEHIN MUNDU HONETARA jaio zen animalia bat: zabaldu ditu begiak Bizitzara, eta, hala goian nola inguruan, ez du ikusten horma hertsagarriak bertze ezer; eta aurrean, burdinazko barrak, zeinen artetik sartzen diren airea eta argia; izan ere, kaiola batean sortu da.

Bertan hazi eta garatu da, indartsu eta eder, esku babesle ikusezin baten zaintzapean: gose dela, janari-platera; egarri dela, urez bete gabela; duela atsedeen-premia, bertan goxo lastozko etzangia; eta mehaka txit ederrak miazkatzen dituen bitartean, on irizten dio eguzki-izpien berotasunaz gozatzeari; arean be, bere etxea argitzeko daude beren-beregi, uste duenez.

Esnatu da egun batean nagiak ateraz eta, hara, kaiolako atea zabal-zabalik! Deskuiduz, jakina. Eta jarri da txokoa pikotxean, harrituta, beldurrez. Eta arrimatu da atera, ezohikoaren izuz, eta itxiko luke, baina lohadar desegokiak ditu horretarako. Hortaz, atera du burua ate-zulotik, eta non ikusten duen zeruertza hedatuz, eta mundua, zabalago lustratuz.

Itzuli da txokora, baina atsedetik ez; gainean baitu Ezezagunaren lilura; eta inguratu da behin eta berriz ate irekira, eta gero eta argi gehiago ikusten du.

Kate Chopin

Eta halako batean, gogo-anabasaren erdian, zutitu, arnasa sakon hartu, eta, lohadarretan tinko, alde egin du lotura eta guzti.

Hegaldi eroan abiatu da lasterrez, mehaka ederrak zauritu eta urratzeko kuidadorik gabe, dena ikusi, usaindu eta ukitu beharrea; gelditu ere egin da, eta ezpainak putzu galgarrian pausatu ditu, gozoa izan daitekeela usteta.

Gose dela, jana bilatu egin behar, batzuetan borrokatu ere bai; eta eztarri egarrirako on den urera iristerako, lohadarrak leher eginik ditu.

Eta hala bizi da: bilatu, aurkitu, poztu eta sufritu. Zabalik dago oraindik deskuiduz irekitako atea; kaiola, ordea, betiko hutsik!